

Bategin ezin duena, bego bakarrik

UZEL-KO historia gogoratzen du. Lehenengo asmatu egiten da mamua eta gero sinestu.

Firme sinestu. Eta jo eta ke defendatzen enpeinatu gero.

Euskaltzaleei azpian edozein asmo partidista zikin suposatzea, politika frankistaren mamua izan zen, eta behar bada nano politiko guztien zientzia bakarra horixe da oraindik, edozein alderditan: susmoa eta trapu zaharra. Euskaltzaleak, isil-isilik eta zokoan geldituta egoten ez bada, beti enbarazo egiten dio luzarorako estrategia handien inbentore jende modu bati.

Euskararekin, aspaldikoa eta betikoa da: inportantea da, baina ez die trabarik jarri behar beste plan inportanteago batzuei. Euskaltzaleak errebindikazio planean egon behar izaten du bere alderdian, sindikatuan, unibertsitatean, elizan eta edonon. Honekin ez ditut alderdi denak eta ez elkarte denak berdintzen.

BAKARRIK: denetan ibili behar izaten du euskaltzaleak zirika eta bultzaka, eta denetan bukatzen du molestatuz, nola eta ez duen behintzat bukatzen rekadista soil bihurtuz.

Badirudi, azken denboran bederen, kontsultatu diren nazioko nahiz nazioarteko soziolinguistak ados egon direla, eta, oker ez banago, Eusko Jaurlaritzako Hizkuntz Idazkaritza bera ados legokeela: erakunde publikoek egiten dutenaz eta egin dezaketenez gain, iniziatiaba pribatuak behar dira, motibazio kanpainak, mobilizazioak, animazioa, propaganda, euskara zabaltzeko.

Hori beti egin da, beti ondo egin ez bada ere. Euskararen aldeko mugidak hemen aspalditik egon dira. Normala zirudien egotea, bidezkoa eta beharrez-

koa. Denek ez zituzten berdin baloratuko, baina inori ez zitzaion burutik pasatzen nonbait, kaltegarritzat eta negatibotzat jotzea eta zankadila jartzen ahalgitea.

BITARTEAN, ordea, zera dago: politikan erdibitu egin gara, instituzioen «aldeko» eta «kontrakoetan» —egia esateko: zein dago herri honetan hain inuxenterik?—. Batzuek beren mugidekin jarraitu dute eta besteek ez dute mugida konturik entzun ere egin nahi, arazoak erabakitzeko instituzioak ba omen daudenez gero.

Baina mugidak —kanpainak, manifestazioak, festak— Paris eta Madril guztiz normalizatu eta demokratiko horietan ere mila modukotakoak egiten dira, inor eskandalizatu gabe, eta Patagonian egiten dira. Eta dena mugidarekin konpondu nahi izatea bezain estupidoa da mendealdeko gizarteetan mugida orori eta edozein anatema larri botatzea, edo beldur panikoa izatea.

—Aparte, gure kasuan, neuri behintzat kalkulu txar bat eta hankasartze politiko izugarria iruditzen zaidala, mugida guztietatik erretiratzeko eta edozein mugidari errezelo gaiztoz begiratzeko jarrera. Demokraziarekin ez dauka zer ikusirik. Eta, zalantzarik batere gabe, instituzioen begirunearekin baino ikusteko gehiago erakusten du instituzioen fetitxismo dogmatiko batekin—.

Euskaltzaleak aspaldian daki, euskarak instituzioen babesa eta laguntza behar duela, biziko bada. Horregatik, hain ere, bestea zergatik arraio utzi egin behar lukeen, beti egin duena, ez daki. Mundu guztiak errepikatzen dionean, jakitun eta ez jakitun, instituzioek bakarrik ezingo dutela euskara salbatu. Herriaren gogoia eta interesa suspertu beharra dagoela. Eragin eta bultzatu beharra dagoela. Eta ez egiten eta ez egingo duela inork, berak ez bada. Eta dakien

bestea da, batzuk mugida horietatik erretiratu egin badira, kontsiderazio eta planteamendu politikoengatik izan dela. Ez dela propio euskararen komenentzien zerikusirik zuten arrazoiengatik izan hain zuzen.

Berdin da. Euskaltzaleak errespetatu ditzaie orohar planteamendu eta arrazoi horiek. Planteamendu horien pagano euskara gertatzen denean, ordea —eta erretiratze hutsak, munduko arrazoikoena izanik ere, horixe dakar—, euskaltzaleak ez dauka zergatik hori onartu. Eta ez onartze horretan ez dago, dagoena beste misteriorik. Ez dauka beti politika orokorraren interesen kontsiderazioari edo are sasipolitikero batzuen susmo gaizto hutsei zergatik amore eman eta haien planteamenduei bereak azpiratu. Eta askoz gutxiago, bere aspirazioak zergatik alderdien oportunitate moari sakrifikatu.

UTZ ditzagun hipokrisia horiek, «euskarak bateratu egin behar ginduzke», etab. etab., okasioa datorren bakoitzean paranoikoen moduan ibili behar badugu. Bategin nahi duenak bategingo du eta nahi ez duena bego bere susmoen, dossieren eta kolumnien instituzio partikular santuan.

Berriz ere hamar urte pasako da, eta UZEL-n ez zegoela deaburik ezkutatuta, deskubrituko da. Ez konspiraziorik eta ez inolako mafiarik zegoen. Eta periodista txit argiren batek ikusi hain garbi ikusten eta defendatzen zuen mamua, orain denok badakigu, berak asmatutakoa zen. Historiak, esaten da, ez dira repetitzen: mamuen eta sorginen historia guztiak bezala, gureak bai.

JOXE AZURMENDI